

PAZKO HIRURRENA

PAZKO-MISTERIOA, LITURGI URTEAREN GAILURRA

Kristoren misterio «osoa» ospatzeko Kristau Elkarteak eratzen duen aldiari deritza *Liturgi urtea*. Kristoren misterioa ospatzean, fededun bakoitza misterio horretan «sar dadin» eta «partaide izan dadin» eta «bizi dezan» nahi du Elizak.

Kristoren misterioaren ospakuntzak Pazkoan du bere gailurra: **Jesus mundu honetatik Aitarengana «igaro» zela** handikiro ospatzen duenean, hau da, **Jesusen Pazkoan**. Izan ere, Jesus heriotzatik piztuerara igarotzean:

- Jainkoaren salbamen-egintzarik handiena gertatzen da
- Giza historiako egintzarik handiena eta transzentalena gertatzen da
- Nazaretoko Jesusen gertakari osoaren esanahia agerian gelditzen da
- Jesusekiko atxikimendua eta fedea pizten da, Jainkoak Jesusengan egin duenez ohartzean, eta Eliza sortzen da Jesus Piztuak bere Arnasa isurtzean.

Pazkoko gertakariaren argitan uler ditzake eliz elkarteak Jesusen izatea, egintzak, jokaera, mezua eta heriotzaren esanahia. Hau kontuan izanik, garbi ikusten da zergatik den ***Pazko Hirurrena*** Liturgi Urte osoaren ardatza eta gailurra.

Nekaldiaren eguna ez ezik, piztuerarena ere ospatu beharra dugu. Horixe da Hirurren Santua: Kristok nekaldia jasan zuela, hilobian atsedean hartu zuela eta piztu zela ospatzea (San Ambrosiok, Epistola 23, 12-13).

PAZKO HIRURREN SANTUAREN EGITURA

Pazko Hirurren Santua, hiru eguneko ospakuntza hau, Ostiral Santu bezperan, hau da, ***Ostegun Santu arratsean***, hasten du Elizak, *Missa in Coena Domini, Jaunaren Afariko Meza* ospatuz, eta Pazko Igandeko *II. Bezperak* ospatuz bukatzen du.

Pazko Hirurrenaren gailurra eta, horregatik, Liturgi Urtearen gailurra ***Pazko Gaubeilako Eukaristia*** da.

Honela dago eratua Pazko Hirurren Santua:

Ostiral Santuz

Kristoren Nekaldia eta Heriotza «aintzatsua» ospatzen du Elizak, Heriotza hori Jainkoak Jesusengan lortutako garaipena dela aitortuz eta Heriotza horren salbamen-indarra goraiatuz. Hilik egon zen baina egiaz bizi den Jaunari jarraitzeko dei ozena entzuten du egun honetan. Eliz elkarteak ez du eukaristiarik ospatzen, Hitzaren Liturgia nagusia baizik.

Larunbat Santuz

Jesusek hilobian izan zuen isilaldia, atsedenaldia, gogoratzen du eliz elkarteak, isilaldi sakona eginez. Jainkoa Jesusen heriotzaren aurrean itxuraz «isilik» egon zela ere gogoratzen du; baina hilobia egiaz «hutsa» dagoela ahaztu gabe. Egun honetan ere ez du eukaristiarik ospatzen.

Pazko Igandez

Pazko Gaubeila Santuan hasirik, Kristoren Piztuera ospatzen du Elizak handikiro, urteko jairik alaiena eginez. Jainkoaren garaipen-oihua entzuten du Elizak eta errepikatzen: ***Hila zegoen Jauna, hil zuten Pazko Bildotsa... PIZTU DA! BIZI DA!***

Elkarteak –eta elkartearen arduradunak– dei berezia egiten dio elkartekide bakoitzari, ospakuntza horietara biltzera eta hor salbamen-egintza elkarrekin ospatzera, eskertzera eta bizitzera, horrela bere fedea aitortuz, sendotuz, argituz eta bizkortuz. Pazko Gaubeilan ospatzen den Eukaristia da ospakuntza osoaren gailurra.

JATORRIA

Israeldarren pazko-jaia udaberria hastean

Israelen liturgian egunik garrantzitsuenetako bat da *paxha* (edo *pexah*) eguna. Hitz honek «igarotzea, jauzi egitea» esan nahi du. Udaberriaren hasieran artzainek eta nekazariak zituzten ohituretatik dator, nonbait jai hori.

Udaberria hastean, neguko larreetatik udako larreetara joan aurretik, bildotsari lepoa mozten zioten artzainek eta haren odolaz kanpalekua ziprztindu ohi zuten, gaitzak eta ezbeharrak kanpalekuren eta artaldearen gainetik «jauzi egin» zezan, kalterik egin gabe. Nekazariak, berriz, garai berean, lehenengo gari-aleak hartu eta legamiagabeko ogi egin ohi zuten, legamia zaharra bota ondoren. Egipton esklabu zirela, gau gogoangarri batez Jauna Egiptoko lurraldetik «*igaro*» zela, egiptoarren seme zaharrenak hilarazi zituela eta hebrearren semeen gainetik kalterik egin gabe «*jauzi egin*» zuela oroitzeko eta ospatzeko hartu zituzten hebrearrek –israeldarrek– bi ohitura horiek. Izan ere, Jaunak, igarotzean, askatu egin zuen bere berria morrontzapetik (ikus Irteera 12). Askapen hori erabatekoa izan zen israeldarrak Itsaso Gorrian zehar oinik busti gabe *igaro* zirenean eta egiptoarren gudarostea, aldiz, urpean galdu zenean (ikus Irteera 14). Bi gertakari nagusi horiek ospatu ohi dituzte ***israeldarrek pazko-jai***an bildotsa eta legamiagabeko ogia janez, «Nisan» edo «Abib» izeneko hilaren 14an (gure martxoa-apirila inguruan).

Jesusen pazkoa:

Heriotzatik piztuerara «igarotzea»: Salbamenaren Historiaren gailurra

Jesus heriotzatik piztuerara –bizi betera– ***igarotzea*** da, kristau fedearen arabera, Salbamenaren Historiako gertakaririk handiena, historia osoaren gailurra. Gertakari nagusi hau, Ebanjelioek diotenez, juduen pazko-jaiaren inguruan izan zen. Hona hemen

San Joanez dioena: «*Pazko-jaiak gainean zen. Jesusek bazekien mundu hau utzi eta Aitarengana joateko ordua iritsi zitzaioela. Munduan ziren beretarrak beti maite izan zituelarik, azkenean bete-bete maitatu zituen*» (Joan 13, 1).

Zortzian behin, igandean –*Dies Dominica*, «Jaunaren Eguna» deituan– bildu ohi da eliz elkarteak betidanik **Jaunaren piztuera** ospatzera, egun horretan, «*xabbat*» edo larunbateko atsedeen-egun biharamunean, izan baitzen gertakari hori, Ebanjelioek diotenez. Lehenengo mendean, hala ere, ez da igande batez pazkoa ospatzen zuteneko notiziarik.

Eliz elkarteak pazko-jaiak eratu

San Paulok, 57. urtean, juduek beren pazkoa ospatzen zuten garaian idatzitako gutunean, hau dio: «*Bazter ezazue legami zaharra eta izan ore berria, legamiagabeko pazko-ogiak bezala; izan ere, horixe zarete, Kristo gure Pazko-bildotsa opari eskainia izan denez gero. Ospa dezagun, beraz, pazko-jaiak; baina ez legamia zaharrarekin, bekatu eta gaiztakeriako legamiarekin, legamiagabeko pazko-ogiek baizik, hau da, bihotz garbitasunez eta egiaz*» (1 Korintoarrei 5, 7-8). Ez du horretarako egun berezirik aipatzen. Baina zenbaiten ustez, hitz horiek eta Itun Berriko beste batzuek –Jesusen Nekaldiaren kontarek Ebanjelioetan eta Pedroren 1. gutunak Bataioaz egiten duen katekesian– pazkoaren ospakuntzaren aztarnak egon daitezke.

II. mendean, Sardisko Melitonek hau dio bere homilia batean: «*Pazkoko misterioa Kristo da*» edota «*gure salbamenerako Pazkoa Kristo da*». II. mendean, dirudienek, igande horietako bat era berezian ospatzen hasi ziren: juduek beren pazkoa ospatu ohi duten egunaren inguruko igandea. Beharbada, juduen jaiaren eraginez, kristauak ere igande horri *pazko-eguna* deitzen hasi ziren eta handikiro ospatzen.

Zein egunetan ospatu Pazko-jaiak

II. mendearen bukaeran eztabaida gogorra izan zen Ekialdeko eta mendebaldeko eliz artzainen artean, kristauen pazkoa zein egunetan ospatu behar zen erabakitzerakoan. Ekialdeko elkarrekin Nisan hilaren 14an ospatzen hasi ziren. Mendebaldekoek, aldiz, egun horren hurrengo igandean ospatzen zuten, Jaunaren Eguna ospatzeko tradizioari helduz. Erromako Elizaren aldetik Anizeto eta hurrengo aita santu batzuk atera ziren pazkoa igandez ospatzearen alde. Ekialdean Polikarpo eta Polikrates Esmirnako apezpikuak Nisan hilaren 14an ospatzearen aldekoak ziren. Viktor aita santuak (188-199) eskomikatu egin nahi izan zituen Ekialdeko apezpikuak. Baina Lyongo apezpiku zen Ireneok bitartekari-lanak egin zituen, fede-arazoa ez baizik ohitura-arazoa baizik ez zela ikusaraziz.

Zesareako Eusebio historiagileak dioenez, batzar ugari egin zuten eta gutunak ere bai bidali elkarri, harik eta erabaki hau hartu zuten arte: «*Jauna hilen artean piztu zeneko misterioa ez dezala inork ospatu igandea ez den beste egunen batean eta buka ditzagula egun horretan baraualdiak*». III. mendean ez dago pazkoa Nisan hilaren 14an ospatzen zeneko aztarnarik.

Erdi Aroan Gaubeila desagertu egin zen, ospakizuna Larunbat Santu eguarteraino aurreratu zutelako. Izan ere, desagertua zen bataioak gau horretan egitea. Eta beste ohitura batzuk nagusitu ziren: su berria eguzki-izpiak lupa bidez baliatuz edota suharriak joz piztekoa, igande goizean Jesus piztuaren irudiak eta Andre Mariaren irudiak prozesioan atera eta elkar aurkitzea...

1951an Pio XII.a aita santuak eraberritu egin nahi izan zuen Pazko Hirurrenaren ospakuntza, lehenengo mendeetako egitura berreskuratuz. Eraberri hori, ordea, Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren etorriko zen, Paulo VI.a aita santuak Meza Liburu berria 1969ko apirilaren 3an argitaratu zuenean.

LITURGIA ETA ESANAHI TEOLOGIKOA

Hasieran larunbatetik igande egunsentia arteko *Gaubeila* zen ospakuntza nagusia. «Kristauek, batzar santuan bildurik, arretaz entzuten zuten Liburu Santuetako zenbait zatiren irakurketa. Gaubeilaren bukaera aldera, apezpikuak homilia egin ohi zuen eta kristaugaiak bataiatu egiten zituzten. Ondoren, gainerako kristauekin batera, eukaristi mahaian eseri ohi ziren, Eukaristia ospatzeko. Eguna argitzean, norbere etxera itzuli ohi zen, pazko-bozkarioa aurpegian zeramatela» (A. Hamman-ek).

Gaubeila nagusi horretako ospakuntzarako bi egunez barau santua eginez prestatu ohi ziren kristauak. Eta Gaubeila bukatzean, *agape* edo oturuntza egin ohi zuten pozik elkarrekin. Hala aitortzen du III. mendeko *Siriako Didaskalia* deritzan dokumentuak.

IV. mendeaz gero, ordea, Pazko Gaubeilako ospakuntza hiru egunetara zabaldu zuten, **Jesusen pazkoa hiru une nagusitan** ospatuz:

- Ostegun Santu arratsean Jaunaren Afariaren oroigarria egiten du kristau-elkarteak, pazko berria irudikatzen duen Afariaren oroigarria.
- Ostiral Santu arratsaldean Pazko Bildotsaren opaltzea, sakrifikatzea, gogoratzen du.
- Larunbat Santuko gauean, igande egunsentia arte dirauen Pazko Gaubeilan, bere Jaunaren piztuera eta garaipena ospatzen du handikiro.

Horrela eratu zuten *Pazko Hirurrena*.

Ostegun Santuz: Jaunaren Afariaren oroigarria

Pazko Hirurrenaren ataria da, Pazko Igandeko bigarren Bezperak ospatu arteko Jai nagusiaren hasiera. Juduek beren pazko-afarirako prestaketak egiten ari zirelarik eta giro horretan, *Azken Afaria* egin nahi izan zuen Jesusek bere ikasleekin. Pazko-afariko ohiturak eta erritoak eginez, pazko berria –bere pazkoa– irudikatu nahi izan zuen Jesusek: *gurutzeko heriotzatik piztuerara igarotzea*, alegia; eta pazko berriaren esanahia adierazi:

Ogia zatitu eta jaten emanez, ardoa edaten emanez, bere buruaren ematea, opari eskaintzea, adierazi zuen, ogi-ardo horietan bere izatea, bere salbamen-egintza, bere burua utzi zigun: «*Hau nire gorputza da, hau nire odola da*» esatea «hau ni naiz» esatea da. Ebanjelio sinoptikoek dakarzkigute hitz horiek. Joanen ebanjelioak, aldiz, oinen

garbitzea aipatzen du, Jesusek bere burua gure alde eman zuela –gure *zerbitzari* egin zela– adierazteko. Eta, horrekin batera, *elkar maitatzeko* agindua. Zeinu horiek egitean eta bere ikasleei «*egizue hau nire oroigarri*» esatean eratu zuen Jesusek Eukaristia Sakramentua eta Apaizgo kristaia.

Ostegun Santuko liturgiak Azken Afari haren oroigarria egiten du, pazko-ospakizuna hasteko:

Hitzaren liturgiako irakurgaietan aditzera ematen da Jesusen Afariak pazko-gertakariarekin duen zerikusia eta lotura:

- Israeldarren pazko-afaria gogoratzen du aurrena kristauen batzarrak (Irteera 12, 1-8. 11-14).
- Jesusek Azken Afarian egina eta esana gogoratzen da gero (1 Korintoarrei 11, 23-26).
- Ebanjelioan, berriz, ikasleei oinak garbitu izana eta hori egiteko agindu izana gogoratzen du (Joan 13, 1-15)

Homiliaren ondoren, apaiz batzarburuak, Jesusek egina irudikatuz, **oinak garbitu** ohi dizkio zenbait laguni, bizitzan ere, Jesus bezala, elkarren zerbitzari apal izan behar dugula oroitaraziz.

Eukaristi Otoitza egitean, Azken Afari hura **gaur** gertatzen ari dela oihukatzen du. Izan ere, Jesus bera ari da gaurko elkartearentzat Aitaren aurrean otoitz egiten, ogia zatitzen eta bere burua eskaintzen. Eukaristia honetan bilduak ogi-ardoak –gorputza eta odola– har ditzakete jaunartzeko.

Azkenean, **Jauna era berezian gordetzen da** –monumentuan–, Ostiral Santuz jaunartzeko eta gaixoei komunioa eraman ahal izateko.

Ostiral Santuz: Jaunaren Nekaldia eta Heriotzaren oroipena

Ostiral Santuz elizkarteak ez du Eukaristia ospatzen. «Barau» egiten du, Senarra kendu diotelako. Bere Jaunaren Nekaldia eta Heriotza gogoratzen du hunkiturik. Hori egitean, ordea, gogoan du gertakari horrek duen ondorioa: bere Jaunaren garaipena eta, horretan, gizon-emakume guztien salbamena. Salbamen horren iturria Jesus da, hil eta piztua, eta haren saihetseko zauritik odola eta ura isurtzean, salbamen hori isuri zuen Jainkoak mundu osoaren gainera, Sakramentuetan adierazten eta gertaberritzen den salbamena.

Ostiral Santuko elizkizunean Hitzaren Liturgia nagusitzen da. Eta, horren osagarri, Gurutzea gurtzen du kristauen batzarrak eta eukaristi ogia hartzen du, bezperan sagaratua.

Isiltasun santuan egindako sarrera eta otoitzaren ondoren, **Hitzaren Liturgia nagusia** hasten da, garrantzi handiko hiru irakurgai hartuz:

- 1.a, Jahwehren Zerbitzariaren laugarren kantika: Isaia 52, 13–53, 12
- 2.a, Semearen esaneko izatea: Hebrearrei 4, 14-16; 5, 7-9
- 3.a, Jaunaren Nekaldia, egiazko pazko-bildotsa eta egiazko erregea Jesus dela oihukatuz: Joan 18, 1–19, 42

Homiliaren ondoren **Jainkoaren Herriaren otoitz nagusia** egiten du batzarrak, hamar otoitz-gai kontuan izanik eta Jesusen heriotzaren fruitua denengana zabaltzeko eskatuz.

Gero, **Jaunaren Gurutzea gurtu** ohi du kristau-batzarrak. Batzarburuak denen aurrean jarri ohi du eta denek, zeinuren bat eginez, gurtu egiten dute jaiera eta zirrara handiz: muin eginez –Emazteak bere Senar hilari muin eginez, alegia– edota haren aurrean burua makurtuz. Jaunaren Gurutzea eta Jauna gurutzean goraipatu egiten du batzarrak horrela.

Azkenik, bezperako Eukaristian sagaraturiko **ogia hartzen dute** denek. Eta, otoitzak egin ondoren, isilean bukatzen da batzar santua.

Pazko Gaubeila eta Pazko igandeko Eukaristia nagusia

Larunbat Santua isilean, gogoetan, baraurik eta otoitzean ematen du Emazteak –eliz elkarteak– bere Jaunaren hilobi ondoan, haren garaipena ospatu zain. Ez du eukaristiarik ospatzen.

Larunbat arratsean, ordea, urteko batzarrik nagusiena eta handiena egin ohi du -elkarteak: **Pazko Gaubeila**, berez ilunabarrean hasi eta igande egunsentian bukatzen den Gaubeila. Gaubeila horretan dena Jesusen pazkoaren irudi, sinbolo eta oroigarri bihurtzen da:

- *Batzar santua*: eliz elkarte osoaren irudi da, Piztuaren elkarte, Emaztea bere Senarraren garaipena ospatzera bildua.
- *Aldi berria*: Jesusen heriotza eta piztueraz Jainkoaren egin duen kreazio berriaren eta hasi zuen egun berriaren irudia.
- *Gaubeila* bera: bere Jauna noiz etorriko zain biltzen den elkartearen gaubeila da.
- *Pazko argia*: su berriak eta horretan pizten den pazko-zuziak irudikatua. Jesusen piztuaren irudi eta sinbolo dira.
- *Bataioko ura*: bekatuak dakarren heriotzatik Jesusekin bat egitean hartzen dugun biziera berrira, egiazko askatasunera, igarotzearen irudi.
- *Aleluia abestea*: Garizuma osoan isilean gorde ondoren, gau horretan ozenki eta goraki oihukatzen da pozezko deiadar hori: Aleluia, Gora Jauna!
- *Eukaristia*: eztei-otordu handia, Pazko Bildotsa bere salbatuekin bat egitea ospatzen duen eztei otordu nagusia.

Pazko Gaubeila lau une nagusitan egituratua dago:

- 1.a *Suaren eta argiaren liturgia*: Kristo piztuaren argia bekatuaren gau iluna garaitzen duela ospatzen du elkarteak eta, bere kandelak zuzian pizturik, haren ondoren sartzen da batzarrera, Piztuaren jarraibidean ibili nahi duela adieraziz. «*Poztu bedi*» pazko-deia oihukatuz bukatzen da lehenengo une edo zatia.

- 2.a *Hitza*ren liturgia: pazko-zuziaren argitan oihukatzen da gau horretan Jainkoaren Hitza, Salbamenaren Historiako unerik garrantzitsuenak gogoratu. Bederatzi zati har daitezke. Askotan, ordea, honako bost gai hauek hartzen dira, batez ere: Munduaren sorketa, Israel herria Itsaso Gorrian zehar igarotzea, itun berriaren iragarpena –hau entzundakoan, Itun Zaharretik Berrira igarotzean, «Aintza» abestu ohi da–, Bataioaren esanahia eta, Aleluia goraki abestu ondoren, Jesusen piztuera aipatzen duen ebanjelioa.
- 3.a *Bataioaren liturgia*: Homiliaren ondoren, Santuen Letaniak abestu bitartean, bataiatzeko daudenak batzarraren aurrera etortzen dira, ponteko ura handikiro bedeinkatzen du batzarburuak, kristaugaiak bataiatzen ditu eta, azkenik, elkarte osoak Bataioko Aginduak berritzen ditu, kandela piztuak eskuetan dituela.
- 4.a *Eukaristiaren liturgia*: urteko eukaristi ospakuntzarik nagusiena da. Beti, baina gau horretan bereziki, eliz elkartean bere erdian ikusten du bere Jauna, esker-otoitza egitean eta ogia zatitzean. Beti, baina gau horretan bereziki, bozkario handiz hartzen du parte kristau-elkarteak bere Jaunaren mahaian.

Pazko igandeko Eukaristia ere oso handikiro ospatu ohi du Elizak.

HERRIAREN OHITURAK

Hain garrantzitsua izanik, Pazko Hirurrenaren inguruan ere zenbait ohitura sortu eta nagusitu izan da herritarren artean. Aipa ditzagun nabarmeneak:

Erramu bedeinkatuz gurutzetxoak egin ohi dira eta, argizari-tanta bat bota ondoren, hormako harri-tarteetan edota soro-ertzetan jarri ohi dira gurutzetxoak.

Ostegun eta Ostiral Santuz, Jauna preso dagoelako, deabruak libre ibiltzen direlakoan, ilundu baino lehen etxeratu beharra dago. Egun gorietan abereak ez dituzte uztartzen, lanera ateratzeko. Errota ere geldi egoten da. Kanta zaleak isilik egoten dira eta ikuskizunik ere ez dago. Ostiral Santu eguarterean artoa aletu ohi da herriren batzuetan eta ereiteko gorde, artorik hoberena horixe izaten delako. Ostiral Santuz elizkizunetara joateko traje beltza jantzi ohi da.

Larunbat Santuz, su bedeinkatuan ardaia piztu eta, lokarri-puntan harturik eta eraginez, «su berria» baserriz baseri zabaldu ohi zuten..

PROZESIOAK ETA JAUNA GURUTZETIK ERAISTEAZ IKUSKIZUNA

Ostegun Santuz eta Ostiral Santuz Gipuzkoako zenbait herritan prozesioak egin ohi dira. Ostegun Santuz zenbait irudi edo «paso» atera ohi da leku batzuetan: Jesusen Afaria, Getsemaniko otoitza eta atxiloketa, Jesus zigorkatua, Jesus gurutzea daramala, Jesus gurutziltzatua eta Andre Maria Nekeetakoaren irudiak.

«Jauna guruzetik eraistea» deritzan ikuskizuna, garai batean parrokia gehienetan izan ohi zen Ostiral Santu ilunabarrean.

Jesusen tamaina naturaleko irudia ezarri ohi da gurutzean, elizako aldarean, eta Andre Maria Nekeetakoaren irudia gurutzearen inguruan. San Migel goiaingeruaren jantziak harturik, sarrera nagusia egiten du batek, gurutzea, Andre Maria eta batzartuak goraki agurtuz.

Ondoren, apaizak sermoia egin ohi du Jesusen nekaldia eta heriotza aipatuz eta Andre Mariaren bakardadea deitoratuz. Hitzaldia bukatzean, abesbatzak «Hil da Jauna» gorazarrea abestu ohi du handikiro. Gero, predikariak zuzendurik, Jesusen irudia guruzetik eraitsi ohi dute Arimateako Jose eta Nikodemo pertsonaienak egiten dituztenek, ekintza horren une bakoitza zehazki adieraziz: INRI ikurra kentzea, arantzazko koroa kentzea, esku bakoitzeko eta oinetako iltzeak ateratzea eta, azkenean, Jesusen hilotza guruzetik eraistea. Hil-kutxan ezarri ondoren, «entierroko prozesioa» egin ohi da. San Migel joan ohi da denen aurretik, apostolu, nazareno eta aingeru jantziriko haurrak gero, hauekako batzuek eskuetan Jesusi kendutako koroa eta iltzeak eramanez; jarraian Andre Maria Nekeetako, «hiru Mariak» lagun dituela (Joanen ebanjelioek hiru emakume aipatzen ditu gurutzearen ondoan: Andre Maria, Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena). Gizasemeak eta emakumeak ere multzo banatan joan ohi dira prozesioan. Hondarribiko parrokian, Segurakoan, Astigarragakoan, Azkoitikoan, Mutrikukoan egin ohi dituzte horrelako ikuskizun edota prozesioak.

JAUNAREN NEKALDIA IRUDIKATU

Gurutze bidea (Via Crucis)

Parrokia eta elkarte askotan, Garizumako ostiraletan eta, era nagusian, Ostiral Santuan «Gurutze bidea» deituriko elizkizuna egin ohi da. Herri askotan mendiko ermitaren batera bidean egin ohi dute otoitzaldia. Horietan entzunena, Ernio mendiko gailurrean egin ohi dena da.

Hamalau egonalditan, Jesusen Nekaldiko une bakoitza gogoratu ohi du kristau-elkarteak, ebanjelio-zatiak entzunez, salmoak errezatuz eta otoitzak eginez. Euskal Herrian oso zabalduak dauden bertsoak kantatu ohi dituzte egonaldi bakoitzean.

Balmasedako ikuskizuna

Izen handia hartu du Balmasedako herriak Ostiral Santuz eskaini ohi duen ikuskizunak: Jesusen nekaldia eta heriotzaren antzezpenak.

Tankera horretako antzezpenak badira beste herri eta parrokia batzuetan ere.

*Jesus Maria Arrietak
2006ko Aste Santuan*

TRIDUO PASCUAL

MISTERIO PASCUAL, CUMBRE DEL AÑO LITÚRGICO

Se denomina *Año Litúrgico* al tiempo que la Comunidad Cristiana dedica a la *celebración del misterio «íntegro» de Cristo*. Al celebrar el misterio de Cristo, la Iglesia pretende que cada creyente «se integre», «sea partícipe» y «viva» realmente el misterio.

La celebración del misterio de Cristo tiene su punto culminante en la Pascua: cuando celebra solemnemente el **«paso» de Jesús este mundo al Padre**, es decir, la **Pascua de Jesús**. Y es que cuando Jesús pasa de la muerte a la resurrección:

- Sucede el acontecimiento salvífico más grandioso realizado por Dios
- Acontece el hecho más grande y más trascendental de la historia humana.
- Es puesto de manifiesto el significado del acontecimiento de Jesús de Nazaret.
- Al tomar conciencia de la acción de Dios en Jesús, brota la adhesión y la fe en Jesús y nace la Iglesia al infundir su Espíritu Jesús Resucitado.

Sólo a la luz de los acontecimientos pascuales puede comprender la Comunidad Cristiana la figura de Jesús, sus hechos, su comportamiento, su mensaje y el significado de su muerte en Cruz. Teniendo esto presente, resulta más que evidente que el Triduo Pascual sea el eje y cumbre de todo el Año Litúrgico.

Además de la Pasión de Cristo, debemos celebrar también la Resurrección. Eso es precisamente el contenido Triduo Pascual: la celebración de la pasión de Cristo, de su descanso en el sepulcro y de su resurrección al tercer día (San Ambrosio, Epístola 23, 12-13).

ESTRUCTURA DEL SANTO TRIDUO PASCUAL

La Iglesia comienza la celebración del Santo Triduo Pascual la víspera del Viernes Santo. Comprende tres días, comenzando *la tarde del Jueves Santo* con la celebración de la *Missa in Coena Domini*, (la Eucaristía de la Última Cena del Señor), y concluyendo con las *II Vísperas* del Domingo de Pascua.

La cima del Triduo Pascual y, en consecuencia, la cima del Año Litúrgico, es la *Eucaristía de la Vigilia Pascual*.

Esta es la estructura del Santo Triduo Pascual:

Viernes Santo

La Iglesia celebra la «gloriosa» Pasión y Muerte de Jesús, reconociendo que esta Muerte constituye el triunfo que Dios ha logrado en Jesús y ensalzando la fuerza salvadora de esa Muerte. Ese día oye la llamada del Señor que realmente murió, pero que vive eternamente. Ese día la comunidad eclesial no celebra la eucaristía, sino la Liturgia de la Palabra de manera muy solemne

Sábado Santo

La comunidad eclesial conmemora el silencio, el descanso de Jesús en el sepulcro, haciendo un profundo silencio. De esta manera conmemora que también Dios permaneció de alguna manera «en silencio» ante la muerte de Jesús, pero sin olvidar que el sepulcro en realidad está «vacío». Tampoco este día celebra la Iglesia la eucaristía.

Domingo de Pascua

Iniciando la celebración en la Santa Vigilia Pascual, la Iglesia conmemora la Resurrección de Cristo con gran solemnidad, la fiesta más grande del año. La Iglesia escucha el canto divino de victoria, repitiendo: *¡El Señor que estaba muerto, el Cordero Pascual inmolado... HA RESUCITADO! ¡CRISTO VIVE!*

La Comunidad —y el responsable de la comunidad— hace un llamamiento especial a cada creyente para que se sume a esta celebración, dando gracias a Dios y viviendo en comunidad el acontecimiento salvador, profesando, iluminando y fortaleciendo de esta manera su fe. La Eucaristía que se celebra en la Vigilia Pascual es la cumbre de toda la celebración.

ORIGEN

La fiesta pascual de los israelitas al comienzo de la primavera

La paskha (o *peshah*) es el día más importante en la liturgia de Israel. Esta palabra significa «pasar, saltar». Parece que dicha fiesta tiene su origen en las costumbres que tenían los pastores y agricultores para celebrar la llegada de la primavera.

Al comienzo de la primavera, antes de trashumar de los pastos de invierno a los de verano, los pastores degollaban un cordero y rociaban con su sangre el campamento, para ahuyentar las enfermedades y desgracias, es decir, para que éstas «saltaran» por el lugar y por encima del rebaño sin provocar daño. Los agricultores, en la misma época del año, recogían las primicias, los primeros granos de trigo, y hacían pan sin levadura, después de deshacerse la levadura vieja. Los hebreos —los israelitas— celebraban de esa manera el hecho de que, siendo esclavos en Egipto, una noche memorable el Señor los *liberó* de la esclavitud de Egipto, exterminando a los primogénitos de los egipcios, pero *saltando* por encima de los hijos de los hebreos, sin provocarles ningún daño. De ahí que adoptaran ambas costumbres para celebrar y conmemorar tales acontecimientos (cfr. Éxodo 12). Esa liberación fue total cuando los israelitas atravesaron el Mar Rojo a pie enjuto (cfr. Éxodo 14). Los *israelitas* celebran estos dos importantes acontecimientos en la *fiesta pascual*, comiendo el cordero y el pan sin levadura, el día 14 del mes llamado «Nisan» o «Aviv» (entre nuestro marzo o abril).

Pascua de Jesús:

«Paso» de la muerte a la resurrección: cumbre de la Historia de la Salvación

Según la fe cristiana, *el paso* de Jesús de la muerte a su resurrección —a la vida plena— es el acontecimiento más grande y más importante en toda la Historia de la Salvación. Según los relatos Evangelios, este importante acontecimiento sucedió durante la fiesta pascual de los judíos. He aquí lo que cuenta San Juan al respecto: «*La víspera de la pascua, sabiendo Jesús que era llegada su hora de pasar de este mundo al Padre, habiendo amado a los suyos que estaban en el mundo, los amó hasta el extremo*» (Juan 13, 1).

La comunidad creyente se reúne desde sus orígenes cada ocho días, el domingo —el llamado «Día del Señor, *Dies Dominica*»— para celebrar **la Resurrección del Señor**, pues, según los Evangelios, el acontecimiento ocurrió el «*shabbat*» o día siguiente del descanso sabático. No se tiene noticia de que, durante el primer siglo celebraran la pascua un domingo determinado.

La comunidad eclesial establece la fiesta pascual

Así se expresa San Pablo el año 57, en una carta escrita en las fechas en que los judíos celebraban su pascua: «*Haced buena limpieza de la levadura del pasado para ser una masa nueva, conforme a lo que sois, panes sin levadura. Por que Cristo, nuestro Cordero pascual, ha sido inmolado. Por tanto celebremos nuestra Pascua no con levadura del pasado, que es maldad y perversidad, sino con panes ázimos, que son inocencia y autenticidad*» (1 Corintios, 5, 7-8). San Pablo no menciona ningún día concreto. Pero según algunos autores, en esas palabras y otras del Nuevo Testamento — por ejemplo, en las narraciones evangélicas de la Pasión de Jesús y en la catequesis bautismal de la I carta de Pedro— podría haber indicios de la celebración de la pascua.

En el siglo II, cuenta Melitón de Sardes en una de sus homilías: «*Cristo es el misterio Pascual*» o «*la Pascua de nuestra salvación es Cristo*». Al parecer, en el siglo II comenzaron a celebrar de modo especial uno de los domingos: el domingo siguiente al día en que los judíos celebraban su pascua. Tal vez, por influencia de la fiesta de los judíos, los cristianos también comenzaron a denominar *día de pascua* a ese domingo y a celebrarlo con gran solemnidad.

Cuando celebrar la fiesta de Pascua

A finales del siglo II las iglesias pastoras de Oriente y Occidente mantuvieron una fuerte discusión para dilucidar qué día se debía celebrar la pascua de los cristianos. En las comunidades de Oriente empezaron a celebrar la pascua el día 14 del mes de Nisan. Los de Occidente sin embargo, celebraban al domingo siguiente de ese día, manteniendo la tradición de celebrar el Día del Señor. Por parte de la Iglesia de Roma, el papa Aniceto y otros posteriores fueron partidarios de celebrar la pascua en domingo. Sin embargo, en Oriente los obispos Policarpo y Policrates de Esmirna eran partidarios de celebrar el día 14 del mes de Nisan. El papa Víctor (188-199) quiso excomulgar a los obispos de Oriente, pero el obispo de Lyon, Ireneo, actuó de intermediario, demostrando que no era cuestión de fe sino cuestión de costumbre y tradición.

Según cuenta el historiador Eusebio de Cesárea, celebraron innumerables reuniones y cruzaron incontables cartas hasta que adoptaron el siguiente acuerdo: «*Que nadie celebre el misterio en el cual el Señor resucitó de entre los muertos ningún día que no sea domingo, y finalicemos ese día los ayunos*». No existen indicios de que en el siglo II se celebrara la pascua el día 14 del mes Nisan.

En la Edad Media desapareció la Vigilia porque adelantaron la celebración a la mañana del Sábado Santo. En realidad había desaparecido la costumbre de bautizar esa noche. Sin embargo se impusieron otras costumbres: encender la nueva luz valiéndose de una lupa o frotando los pedernales, así como sacar el domingo a la mañana en procesión las imágenes de Jesús resucitado y la Virgen María para el encuentro de ambos...

En 1951 el papa Pío XII quiso renovar la celebración del Triduo Pascual, recuperando la estructura de los primeros siglos. Pero esa renovación llegaría con la celebración del II Concilio del Vaticano, cuando el papa Pablo VI publicó el nuevo Misal el 3 de Abril de 1969.

LITURGIA Y SIGNIFICADO TEOLÓGICO

En un principio la *Vigilia* comprendida entre el sábado y el amanecer del domingo era la celebración central más importante. «Los cristianos, reunidos en santa asamblea, escuchaban con atención la lectura de diversos pasajes de los Libros Sagrados. Al final de la Vigilia, el obispo ofrecía su homilía y bautizaba a los futuros cristianos. A continuación, junto a los demás cristianos, se sentaban alrededor de la mesa para celebrar la Eucaristía. Al despuntar el día cada cual volvía a su casa, reflejando en su rostro la alegría pascual» (A. Hamman).

Los cristianos ayunaban durante dos días a fin de prepararse para la celebración de la Vigilia principal. Al finalizar la Vigilia, celebraban todos juntos y alegres el *ágape* o comida. Así recoge el documento llamado *Didaskalia de Siria* del siglo III.

A partir del siglo IV, la celebración de la Vigilia Pascual se extendió a tres días, celebrando **la pascua de Jesús en tres momentos importantes:**

- La tarde del Jueves Santo la comunidad cristiana celebra la Cena del Señor, en conmemoración de la Cena que representa la pascua nueva.
- La tarde del Viernes Santo conmemora la ofrenda del Cordero Pascual.
- La noche del Sábado Santo, en la Vigilia Pascual que dura hasta el amanecer del domingo, celebra con gran solemnidad la resurrección y triunfo de su Señor.

Estructura del *Triduo Pascual*

Jueves Santo: conmemoración de la Cena del Señor

Es el umbral del Triduo Pascual, el comienzo de la gran Fiesta, antes de celebrar las segundas Vísperas del Domingo de Pascua. Mientras los judíos se preparaban para

celebrar la cena pascual, en ese ambiente, quiso celebrar Jesús su *Última Cena* con sus discípulos. Realizando los gestos y ritos de la cena pascual judía, quiso Jesús representar la nueva pascua, su pascua, es decir *el paso de la muerte a la vida*, y expresar el significado de la nueva pascua:

Partiendo el pan y dándoselo a comer a sus discípulos, y tomando el vino y dándoselo a beber quiso expresar su entrega total, su ofrenda, su acción salvadora. Haciéndose presente en ese pan y en ese vino, se nos dio diciendo: «*Este es mi cuerpo, esta es mi sangre*» que es lo mismo que decir «este soy yo». Los evangelios sinópticos recogen esas palabras de Jesús. El evangelio de Juan, en cambio, narra el lavatorio de los pies, para expresarnos que Jesús dio su vida por nosotros —se hizo nuestro *servidor*—, a la vez que nos dió un mandamiento nuevo «*amaos los unos a los otros*». Al realizar esos gestos y al decir «*haced esto en conmemoración mía*» a sus discípulos, instauró Jesús el Sacramento de la Eucaristía y el Sacerdocio cristiano.

La liturgia del Jueves Santo conmemora la Última Cena para dar comienzo a la celebración de la Pascua:

En las **lecturas de la Liturgia de la Palabra** se muestra la relación existente entre la Última Cena de Jesús y el acontecimiento pascual:

- La comunidad cristiana conmemora en primer lugar la cena pascual de los israelitas (Éxodo 12, 1-8. 11-14).
- Conmemora también lo que hizo y dijo Jesús en la Última Cena (1 Corintios 11, 23-26).
- En el evangelio, sin embargo, nos recuerda el lavatorio de los pies a sus discípulos y el mandato que les dió para que ellos hicieran lo mismo. (Juan 13, 1-15).

Después de la homilía, el celebrante, representando lo que hizo Jesús, lava los pies a algunas personas, expresando que en la vida, al igual que Jesús, debemos ser humildes servidores de los demás.

En la **Oración Eucarística** se proclama que **hoy** se está actualizando aquella Última Cena. Es el mismo Jesús quien ora ante el Padre, parte el pan y se ofrece en oblación para la comunidad de hoy. Los reunidos en esta Eucaristía pueden comulgar bajo las especies de pan y de vino, el cuerpo y la sangre de Cristo.

Al finalizar, **se hace la reserva de la eucaristía de manera muy especial** —en el monumento—, para comulgar el Viernes Santo y para poder llevar la comunión a los enfermos.

Viernes Santo: conmemoración de la Pasión y Muerte de nuestro Señor Jesucristo

El Viernes Santo la comunidad eclesial no celebra la Eucaristía. «Ayuna», porque le han quitado el Esposo. Recuerda emocionada la Pasión y Muerte de su Señor. Sin embargo al experimentar ese hecho, recuerda también la consecuencia que tiene el mismo: el triunfo de su Señor y, en consecuencia, la salvación de todos los hombres y mujeres. Jesús, muerto y resucitado, es la fuente de esa Salvación y, al derramar el agua y la

sangre de su costado, el Señor derramó esa salvación sobre toda la humanidad, salvación que se manifiesta y actualiza en los Sacramentos.

En la celebración del Viernes Santo la Liturgia de la Palabra es el centro; la comunidad cristiana completa la celebración con la adoración de la Cruz de Cristo. Ese día recibe el pan eucarístico consagrado la víspera.

Tras el rito inicial en clima de silencio y oración, comienza **la solemne Liturgia de la Palabra**, que ofrece tres lecturas muy singulares:

- 1ª, el cuarto cántico del Siervo de Yahvé: Isaías 52, 13–53, 12
- 2ª, ser obedientes al Hijo: Hebreos 4, 14-16; 5, 7-9
- 3ª, la Pasión del Señor, proclamando que es Jesús es el cordero pascual y el verdadero rey: Juan 18, 1–19, 42

A continuación, la asamblea dirige a Dios la **solemne Oración del Pueblo de Dios**, presentándole diez intenciones de oración y pidiéndole que haga extensivo a todos el fruto de la muerte de Jesús.

Seguidamente se procede a la **Adoración de la Cruz de Cristo**. El celebrante muestra a todos la Cruz, y todos la adoran fervorosa y devotamente mediante un signo: el beso a la Cruz —es la Esposa que besa a su Esposo muerto— o inclinando la cabeza ante ella. La asamblea ensalza de esta manera la Cruz de Cristo y Cristo en la Cruz.

Por último, **comulgan todos el pan** consagrado la víspera en la Eucaristía. Tras la oración conclusiva y la bendición, concluye en silencio la santa asamblea.

La Vigilia Pascual y la Eucaristía principal del domingo de Pascua

La Esposa –la comunidad cristiana- permanece en silencio, ayunando y orando durante el Sábado Santo, junto al sepulcro de su Señor, aguardando la celebración de su victoria. No celebra la Eucaristía.

Pero es la noche del sábado al domingo de Resurrección cuando la comunidad cristiana celebra la asamblea más solemne e importante del año: **la Vigilia Pascual**, Vigilia que comienza al anochecer del sábado y termina al amanecer del domingo. En esa Vigilia todo se convierte en imagen, símbolo, recuerdo y celebración de la Pascua de Cristo:

- *La asamblea santa*: es imagen de toda la comunidad eclesial, de la comunidad del Resucitado, de la Esposa que celebra el triunfo de su Esposo.
- *El nuevo Tiempo*: imagen de la nueva creación y del nuevo día que hizo Dios de la muerte y resurrección de Jesús.
- *La Vigilia*: es la velada de la comunidad reunida a la espera de la llegada de su Señor.
- *La luz pascual*: simbolizada en el fuego nuevo y en el cirio pascual encendido del fuego, símbolos ambos de Jesús resucitado.

- *El agua bautismal, lustral*: símbolo del paso de la muerte que es el pecado a la nueva vida, a la libertad verdadera que alcanzamos al unirnos a Jesús resucitado.
- *El canto del Aleluya*: después estar silenciado durante toda la Cuaresma, esa noche se canta con júbilo ese grito de alegría: ¡Aleluya, Gloria al Señor!
- *La Eucaristía*: gran banquete de boda; banquete principal para festejar el encuentro del Cordero Pascual con sus salvados.

La Vigilia Pascual está estructurada en cuatro momentos o partes fundamentales:

- 1^a *Liturgia del fuego y la luz*: la comunidad celebra el hecho de que la luz de Cristo resucitado triunfa sobre la oscuridad del pecado y, encendidas las velas en el cirio pascual, entra tras éste en la asamblea, manifestando que desea caminar tras los pasos del Resucitado. Proclamando el pregón pascual «*Exultet*» –«Exulte»– concluye la primera parte.
- 2^a *Liturgia de la Palabra*: Esa noche la Palabra de Dios se proclama a la luz del cirio pascual, recordando los momentos más importantes de la Historia de la Salvación. Pueden ser proclamados los nueve pasajes seleccionados. Sin embargo, habitualmente se eligen los cinco siguientes: la Creación del Mundo, el paso del Pueblo de Israel por el Mar Rojo, el anuncio del Nuevo Testamento –después de escuchar esta lectura y simbolizando el paso del Antiguo Testamento al Nuevo, se canta el «Gloria»–; el significado del Bautismo y, tras el canto solemne del Aleluya, se lee el relato evangélico de la Resurrección de Jesús.
- 3^a *Liturgia del Bautismo*: Después de la homilía, mientras se cantan las Letanías de los Santos, se acercan aquellos que van a recibir el bautismo; a continuación, el celebrante bendice el agua de la fuente bautismal, bautiza a los catecúmenos y, por último, toda la comunidad renueva las Promesas de su Bautismo, con velas encendidas en sus manos.
- 4^a *Liturgia de la Eucaristía*: Es la celebración eucarística más importante del año. Siempre, pero especialmente esta noche la comunidad cristiana contempla en medio suyo a su Señor, al hacer la Oración de Acción de Gracias y al partir el pan. Siempre, pero sobretodo esta noche la comunidad cristiana participa con gran júbilo en la mesa de su Señor.

La Iglesia también celebra con gran solemnidad la Eucaristía del domingo de Pascua.

COSTUMBRES POPULARES

Siendo el Triduo Pascual tan importante, han surgido y prevalecido en torno suyo ciertas costumbres populares. Recordemos las más significativas:

Se confeccionan pequeñas cruces con la rama del laurel bendecido y, después de derramar sobre ellos una gota de cera bendita, se colocan entre las piedras del muro de la casa o en los ángulos de los sembrados.

El Jueves y Viernes Santo, puesto que Jesús está preso, se cree que los denominos andan sueltos y hay que retirarse antes que anochezca. Esos días no se uncen los ganados para arar. El molino también permanece inactivo. Los aficionados al canto guardan silencio y no hay espectáculos. En algunos pueblos el Jueves Santo por la mañana se desgrana el maíz y se guarda para la siembra, porque ese es el mejor maíz. El Viernes Santo se viste el traje negro para asistir a los oficios.

El Sábado Santo, se enciende la yesca en el fuego bendecido y, tomándolo en el extremo de un cordel, distribuye de caserío en caserío el «fuego nuevo».

PROCESIONES Y REPRESENTACION DEL DESCENDIMIENTO DE JESÚS DE LA CRUZ

El Jueves Santo y Viernes Santo tienen lugar procesiones en diversos pueblos de Gipuzkoa. El Jueves Santo se sacan varios «pasos» o imágenes: la Cena del Señor, la Oración de Getsemani y el prendimiento de Jesús, Jesús flagelado, Jesús portando la cruz, Jesús crucificado y la imagen de la Madre Dolorosa.

La representación del «descendimiento de Jesús de la cruz» se celebraba en la mayoría de las parroquias al anochecer del Viernes Santo.

En el altar de la iglesia se coloca una cruz con una imagen de tamaño natural de Jesús y la imagen de la Madre Dolorosa próxima a la cruz. Ataviado con las vestiduras del arcángel San Miguel, uno dantzari hace su entrada triunfal, haciendo ostentosos saludos a la cruz, a la Virgen María y a los congregados.

A continuación, un sacerdote hace la predicación sobre la pasión y muerte de Jesús, subrayando la soledad de la Virgen María. Al finalizar la predicación, el coro canta «Ha muerto el Señor» con gran solemnidad. Acto seguido, los personajes que representan a José de Arimatea y Nicodemo van descendiendo la imagen de Jesús de la cruz, dirigidos por el predicador que va explicitando cada momento del descendimiento: Retirar la inscripción INRI, quitar la corona de espinas, extraer los clavos de las manos y los pies, y por último, bajar el cuerpo de Jesús. Después de depositarlo en el féretro, se realiza la «procesión del santo entierro». El arcángel San Miguel va abriendo paso, siendo seguido por los niños que representan a los apóstoles, los nazarenos y otros niños y niñas, vestidos de ángel, portando algunos de éstos la corona de espinas y los clavos extraídos a Jesús; a continuación la Madre Dolorosa, acompañada de las «tres Marías» (los evangelios de Juan hablan de tres mujeres a los pies de la cruz: la Virgen María, la esposa de Cleofás y María Magdalena). Los hombres y las mujeres caminan en grupos separados en la procesión. En la parroquia de Hondarribia, Segura, Astigarraga, Azkoitia y Mutriku, por ejemplo, celebran actos o procesiones de esta índole.

REPRESENTACIÓN DE LA PASIÓN DEL SEÑOR

Via Crucis: Camino de la cruz

En muchas parroquias o comunidades, los viernes de Cuaresma y, de modo particular, el Viernes Santo se celebra el tradicional «Vía Crucis». En muchos pueblos se hace recorriendo el camino que conduce a la ermita de alguna montaña cercana. Entre ellos puede citarse el que se celebra en la cumbre del monte Ernio, por ser el más renombrado.

En catorce estaciones, la comunidad cristiana recuerda cada momento del itinerario de la Pasión del Señor, escuchando pasajes del evangelio, cantando salmos y haciendo oración. En el País Vasco se cantan al respecto en cada estación versos tradicionales conocidos.

El espectáculo de Balmaseda

Ha adquirido mucho renombre el pueblo de Balmaseda a raíz del espectáculo que ofrece el Viernes Santo: la representación de la pasión y muerte de Jesús.

Representaciones similares se ofrecen también en otros pueblos y parroquias.

*Jesús María Arrieta
Semana Santa de 2006*